



SAREKIDOK ARGAZKILARITZA SOZIALAREN VIII. LEHIAKETAREN OINARRIAK

Sarekide elkarte boluntariotzako erakundeen elkarte da eta Getxoko boluntariotza sustatzea eta indartzea du xede nagusia. Hala, elkarte honek Argazkilaritza Sozialaren VIII. Lehiaketa deitu du, GETXO UDALERRIAN BOLUNTARIOTZA ETA GIZARTE-JARDUERAREKIN lotutako egoerak nabarmentzeko bitarteko gisa.

1.- HELBURUA. - Lehiaketa honen helburu nagusia da Sarekideren jarduera osatzen duen funtsezko ardatzetako bat gizarteari erakustea: borondatezko lanaren zabalkunde soziala, hain zuzen ere, eta kasu honetan argazkilaritza digitala bezalako tresna garaikidea erabiliko da.

2.- PARTE-HARTZAILEAK. - Hamalau urtetik gorako edozein pertsonak parte hartu ahal izango du, argazkilaritzan profesionala izan edo ez, banaka edo taldean. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi obra aurkeztu ahal izango ditu, banaka zein taldeka. Parte-hartzaileak hurrengoei buruz arduratuko dira: egile bakarrak izateaz, hirugarrenen eskubiderik ez izateaz eta aurkeztutako argazkien gaineko argazki-eskubideen erreklamazio guztiez. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek eta Sarekidek egin ditzakeen aldaketak ezagutzea eta onartzea dakar. Parte-hartzea doakoa da.

3.- GAIA. - Parte hartzen duten argazkiek gai sozialekin edo boluntariotzarekin zerikusia duten egoerei buruzkoak izan beharko dute. Alde batera utziko dira lan hauek: konnotazio oldarkorrak dituztenak, sentsibiltatea kaltetu dezaketenak edo pertsonen duintasunaren aurkakoak direnak.

Boluntariotza sozialak zer esan nahi duen eta non aurkitu daitekeen ezagutu ezazu eta inspiratu zaitez:

- **Hautzaroa eta familia:**
Imajinatu haur bati eskolako zereginetan laguntzea, ipuin bat irakurtzea edo haren garapena sustatuko duen tailer batean jolastea. Edo hor egotea egoera zail batean dagoen familia bati laguntzeko. Zure denbora espazio seguru bihur daiteke
- **Adinekoak:**
Elkarriketa batek, ibilaldi batek edo egoitza batera egindako bisita batek adineko baten bakardadea hauts dezake. Konpainia eta alaitasun bihurtzen da haien istorioak entzutea, kafe bat partekatzea edo, besterik gabe, bertan egotea. Imajinatu, halaber, klase zoragarri batez gozatzen, non adinekoek beren ezagutza guztia partekatzen duten.
- **Pertsona migratuak eta kulturartekotasuna:**
Pertsonen hizkuntza berri batean moldatzen lagun diezaiekezu, lana bilatzeko orientazioa eta laguntza eman edo eguneroko izapideak egitea erraztu. Kultura, errezetak edo komunitate osoa haztea eragiten duten esperientziak ere parteka ditzakezu.
- **Dibertsitate funtzionala, Desgaitasuna:**
Desgaitasuna duen pertsona bati bere lan-eremuan laguntzea, boluntariotza egiten edo beste pertsona batzuei laguntzen. Desgaitasuna duen pertsonen eguneroko bizitzan laguntzea, aisialdiko eta kiroleko jardueretan parte hartzea edo elkarrekin trebetasun berriak ezagutzea. Partekatutako une bakoitzak inklusio- eta autonomia-bideak irekitzen ditu
- **Gizarteratzea:**
Bazterketa-egoera batean funtsezkoa izan daiteke norbaiti entzuteko keinua egitea, norbaiti laguntzea suspertze-prozesu batean edo komunitate-jardueretan animatzea. Zure hurbiltasuna beste pertsona bati berriro hasten lagunduko dion motorra izan daiteke.
- **Genero-berdintasuna**
Emakumeak ahalduz dituzten programetan laguntzea, prestakuntza- eta enplegu-prozesuetan laguntzea, sentsibilizazio-kanpainetan parte hartzea edo elkarri laguntzeko sareen parte izatea. Zure konpromisoak lagun dezake estereotipoak eraisten, aukerak irekitzen eta bidezkoagoa eta berdinzaleagoa den gizartea eraikitzen.

4.- ARGAZKIEN EZAUGARRIAK. - Argazkiak formatu digitalean aurkeztu beharko dira. Nahi duzun teknika erabil dezakezu eta gaia librea izango da, baldin eta deialdiaren hasierako puntuan adierazitako gai soziala nolabait islatzen badute. Zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahal izango dira. Originalak izan behar dute, aurretik argitaratu gabeak. Koadro bakarreko argazkiak baino ez dira onartuko (*single frame*). Erakusketa anizkoitzak lehiaketatik kanpo geratuko dira. Bi formatu motatan aurkeztu ahal izango dira, eta bietako edozein izango da baliozkoa: **kamera** batekin ateratako argazkia (profesionala edo ez), formatu digitalean aurkeztu beharko dena (JPG), RGB kolore profilarekin, gutxienez 2048x1536 pixeleko tamainarekin alboetan eta gutxienez 300dpi bereizmenarekin; eta **gailu mugikor** baten argazkia, .jpg formatuan aurkeztuko dena, 2048x1360 pixeleko bereizmen gomendatuarekin.

Argazki guztiek izenburu bat izan behar dute, transmititu nahi den esanahia eta egin zen lekua laburbilduko dituen, eta azalpen-testu batekin batera joan ahal izango dira (gehienez 100 hitz). Deialdiko oinarriak betetzen ez dituzten argazki guztiak baztertuko dira, baita konnotazio oldarkorrak dituztenak, sentsibiltatea kaltetu dezaketenak edo pertsonen duintasunaren aurkakoak direnak ere. Argazkian argi eta garbi identifika daitekeen pertsona baten argazkia agertzen bada, haren baimena edo tutorearena beharko da, desgaitasuna duten pertsonak edo adingabeak badira.

5.- LANEN AURKEZPENEA. - Argazki digitalek ez dute lehiakidearen inolako identifikaziorik eraman beharko. Argazkiak posta elektronikoz bidali beharko dira sarekidefoto@gmail.com helbidera, jpg formatuan. Mezuaren gaiari "Sarekideren Argazkilaritza Sozialaren VIII. Lehiaketa" testua agertu behar da. Mezuaren gorputzean edo aparteko dokumentu batean, lanari eman zaion izenburua, azalpen-testua (hala badagokio) eta egileen datuak (izen-abizenak, posta-helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefono-zenbakia) erantsi beharko dira.

Parte-hartzaileek fitxategiak bidaltzeko plataformak edo konpresio-tresnak erabili ahal izango dituzte argazkiak lehen aipatutako helbide elektronikora eransteko, mezuaren gai gisa "Sarekideren Argazkilaritza Sozialaren VIII. Lehiaketa" jarrita eta obrari eman zaion izenburua, azalpen testua (hala badagokio) eta egileen datuak erantsita: izena, abizenak, posta helbidea, posta elektronikoa eta harremanetarako telefono-zenbakia. Epaimahaiak ez du argazkien jatorriaren berri izango, saria esleitu ondoren bakarrik jakingo da egilearen izena. Lehiaketatik kanpo utziko da epaimahaiak egoki, desegoki, iraingarri, bortitz, sexista edo arrazistatzat jotzen duen edo pertsonen oinarritzko eskubideak urratzen dituen edozein eduki.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz, Sarekidek jakinarazten dizu parte hartzeko bidaltzen dizkiguten datu pertsonalen helburua dela lehiaketa garatzea eta, saritutako pertsonetako bat izanez gero, parte-hartzaileekin harremanetan jarri ahal izatea. Nahi izanez gero, erabil ditzakezu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, eramateko eta aurka egiteko eskubideak, legeak ezartzen duen bezala. Horretarako, idazki bat bidali behar duzu info@sarekidegetxo.org helbidera.

6.- ONARTZEKO EPEA. - Argazkiak **azaroaren 16ra** arte bidali daitezke lehen aipatutako helbide elektronikora.

7.- EPAIMAHAIA ETA EPAIA. - Lanak hurrengoek baloratuko dituzte: Sarekideko kideren batek, Getxoko Udaleko erakunde-ordezkarik batek eta irudiaren eta argazkilaritzaren arloko profesionalak edo Getxoko beste eragile batzuen ordezkariak. Aurten, gainera, herritarren botoa izango dugu.* **Epaimahaiak baloratzeko orduan kontuan hartuko dituen alderdietako batzuk obraren sentsibiltatea, originaltasuna, transmititzen diren balioak, argazkiaren kalitatea, sormena eta balioekiko kidetasuna izango dira**, besteak beste. Jasotako lanen kalitatearen arabera, epaimahaiak sariak edo horietakoren bat eman gabe utzi ahal izango ditu.

*Herritarren botoa: Argazkiak aurkezteko epea amaitu ondoren, bozketa online irekiko da. Boto gehien jaso dituzten bi argazkiek puntu bat izango dute epaimahaiaren balorazioan. Argazki horiek obraren izena soilik duen online plataforma baten bidez argitaratuko dira, eta botoa emateko epe bat emango da.

8.- OBREN JABETZA. - Aurkeztutako obra guztiak edozein formatutan erabili ahal izango ditu Sarekidek, eta bere argazki-eta dokumentu-funtsaren parte izango dira. Sarekidek nahi dituen hedabideetan zabaldu ahal izango ditu (webgunea, twitter, facebook, erakusketak, liburuxkak... edo beste sare sozial batzuk), baldin eta horien egilea nor den adierazten bada.



Lehiaketaren oinarriak onartzean hautatutako lanen edo sarien egileak baimena ematen dio Sarekideri, modu ez-esklusiboan, bere lanen erreproduzio-, banaketa- eta jendaurreko komunikazio-eskubideak egikaritzeko, honela:

Erreproduzio-eskubidea, deialdi honetako publizitate-kartelak egiteko eta prentsan Sarekideren proiektuak eta kanpainak txertatzeko, erakusketen katalogoan, liburuxketan eta blogean, Sarekideren webgunean, sare sozialetan (Flickr, Facebook eta Twitter) eta elkartearen kanpainetan eta ekintzetan. Banaketa-eskubidea, prentsako, aldizkarietako, katalogoetako eta, era berean, hainbat komunikabidetako artikulua edo erreportaje posibleak zabaltzeko, baldin eta argazkien egileak aipatzen bada. Jendaurreko komunikazio-eskubidea, bere modalitatean, jendaurrean jartzeko eta eskuragarri jartzeko da, saritutako eta hautatutako lanak eta lehen adierazitako publizitate-kartelak erakusteko, bai eta hirugarrenei aipatutako webguneetara sartzeko aukera emateko ere, hurrenez hurren.

Argazkiak beti erabiliko dira horien egilearen izenarekin. Aurkeztutako argazkiak ez zaizkie inola ere egileei itzuliko. Parte-hartzaileak arduratuko dira jabetza intelektualearen eta norberaren argazkirako eskubidearen arloan indarrean dauden legeak xedapenak betetzeaz, eta erantzukizun deklaratu dute Sarekidek saria edo proiektu eta kanpainak zabaltzeko zehazten dituen komunikabide eta euskarri guztietan lana zabaltzeak edo erreproduzitzeak ez duela lehiakidearen edo hirugarrenen eskubiderik kaltetuko.

Sariak izan ez diren lehiaketara aurkeztutako argazkien egileak Elkartearekin harremanetan jarri ahal izango dira aurkeztutako argazkiaren eskubideak berreskuratzeko, argazkiak aurkeztu eta urtebetera eta erakusketak eta zabalkunde-ekintzak antolatu ondoren.

9.- SARIAK. - Aurkeztutako diseinuen artean, epaimahaiak **irabazle** bat aukeratuko du, eta Kodak_PIXPRO_WP22 Argazki-kamera digital konpaktua (urarekiko eta kolpeekiko erresistentea) jasoko du sari gisa, baita 50 euroko kupoia ere, jakinaraziko den Getxoko argazki-establezimendu batean gastatzeko (edo antzeko ezaugarriak dituen oparia). Era berean, bat-bateko inprimaketa (edo antzeko ezaugarriak dituen oparia) duen argazki-kamera baten **acesit-saria** emango da.

10.-SARIAK EMATEA. - Sarekidek, epaia eman ondoren, sariaren berri emango die irabazleei, eta bere ohiko bitartekoan bidez jakinaraziko du. Sarekidek ekitaldi bat egin ahal izango du sariak emateko.

Oinarri hauetan esplizituki edo inplizituki jorratzen ez den edozein alderdi Sarekidek ebatziko du. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.

Getxon, 2025eko urriaren 8an